

2015eko azaroaren 27an, Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko Batzorde Zuzentzaileak, beste batzuen artean, ondorengoa onartu dau:

## **GIZARTE HEZIKETARAKO ESKU HARTZE ZERBITZUAREN ESLEIPENA ONARTZEA**

### **Xedea**

Gizarte Heziketarako Esku Hartze zerbitzuaren esleipena onartzea.

### **Aurrekariak**

Lehenengoa: 2015eko irailaren 24an, Gizarte Heziketarako Esku Hartze zerbitzua kontratatzeko lehiaketa irekia bidezko esleipen espedienteari hasiera emotea onartu zan.

Bigarrena: Agintzari kooperatiba izan da proposamena aurkeztu dauan elkarte bakarra, 130.500 euroko proposamena egin daualarik. Txosten teknikoa egin da.

Hirugarrena: Agintzari Kooperatibak esleipenerako baldintzak betetzen dauzala ikusita eta dokumentazio guztia zuzen aukeztuta, 2015eko azaroaren 2an, Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko kontratazio mahaiak Gizarte Heziketarako Esku Hartze zerbitzua Agintzari Kooperatibari esleitzea proposatu dau 130.500 eurogaitik.

Laugarrena: Esleipenerako beharrezko dokumentazioa aurkezteko errekerimendua egin jako Agintzari Kooperatibari eta dokumentazio guztia zuzen aurkeztu dau.

### **Argudioak**

Espedientea behar bezala izapidetu da

### **Erabagia**

Lehenengoa: Gizarte Heziketarako Esku Hartze zerbitzua Agintzari Kooperatibari esleitzea 130.500 eurogaitik. (BEZatik salbuetsita dago)

Bigarrena: Kontratua sinatzea 2015eko abenduaren 1etik 2016ko azaroaren 30era.

